

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PROZEDURA NEGOZIATUAREN BITARTEZ HORNIGAIAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

07

AURKIBIDEA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

- 1.- Kontratuaren xedea.
- 2.- Arauak.
- 3.- Kontratuaren aurrekontua, kreditua izatea eta kontratuaren prezioa.
4. Prezioak berraztertzea.
- 5.- Hornikuntzaren iraupena.
6. Esleitzeko prozedura eta modua.

II.- JARRAITU BEHARREKO TRAMITAZIOA, PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

- 7.1.- Eskaerak eta eskaintzak aurkezteari buruzko arau orokorrak.
- 7.2.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan eskaintza aurkezteko gonbidapena.
- 7.3.- Iragarki publikoa, eskaera eta kandidatura-hautaketa, eta eskaintza aurkezteko gonbidapena publizitatearekiko prozedura negoziatuan.
- 7.4.- Eskaintzak aurkezteko epea eta modua aurretiazko publizitaterik gabeko negoziatuan.
- 7.5.- Eskaintzak aurkezteko epea eta modua aurretiazko publizitatearekiko negoziatuan.
- 7.6.- A gutun-azala: proposamen ekonomikoa edo eskaintza eta dokumentazio teknikoa.
- 7.7.- B gutun-azala: dokumentazio administratiboa, bai eta gaitasunari eta kaudimenari buruzkoa ere.
- 7.8.- Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko azalpenak.
- 7.9.-Eskainitako ereduak aztertzea eta dokumentazioa egiaztatzea.

III.- JARDUKETAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA.


- 8.1.- Jarduketak aztertzea eta gutun-azalak irekitzea.
- 8.2.- Negoziazioa.

IV.- KONTRATUA ESLEITUKO ZAION ENPRESA AUKERATZEA.

- 9.1.- Kontratazio-mahaiak behin-behineko esleipena egiteko proposamena.
- 9.2.- Lehenetsunak esleitzean.
- 9.3- Hautaketa arrazoitzeko zerbitzuak egindako txostena

V.- KONTRATUA ESLEITZEA.

- 10.- Kontratuaren behin-behineko esleipena



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

11.- Kontratua behin betiko esleitzea.

VI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

12.- Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak.

13.- Kontratua formalizatzea.

VII. KONTRATUA EGIKARITZEA.

14.- Egikaritzearen zuzendaritza eta ikuskaritza.

15.- Kontratua egikaritzeari buruzko arau orokorrak:

15.1.- Entrega egiteko lekua eta epea.

15.2.- Kontratuaren iraupena eta entrega-epeak.

15.3.- Ondasunak ordezkatzeta.

15.4.- Hurrenez hurrengo entregen zenbatekoa.

15.5.- Instalazioa.

15.6.- Ondasunak eta jarraibideak jasotzea.

15.7.- Administrazioaren berandutza jasotzean.

15.8.- Galerak edo kalteak entrega egin aurretik.

15.9.- Entrega-, garraio- eta instalazio-gastuak.

15.10.- Isilpekotasuna.

16.- Enpresa kontratistaren beste betebeharrak.

17.- Fabrikazio-prozesuko akatsak konpontzeko betebeharra.

18.- Administrazioaren ahalak.

19.- Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak.

20.- Kontratua aldatzea eta etetea.

21.- Kontratua lagatzea eta azpikontratatzea.

VI.- KONTRATUA AMAITZEA.

22.- Hornikuntza jasotzea.

23.- Berme-epea.

24.- Kontratua kitatzea.

25.- Kontratua azkentzea.


26.- Bermea itzultzea.

27.- Epeak ez betetzea.

IX.- ERREKURTSOAK, ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

28.- Errekurtsuak. Kontratazio-arloko errekurtsu berezia.

29.- Eskubideak eta jurisdikzio eskuduna.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Oinarri teknikoen agirian jasota datozen produktuak edo ondasunak erostea, eskuratzea eta, beharrezkoa bada, instalatzea da kontratu honen xedea. Azaleko orriko 1. puntuan daude zehazturik produktu eta ondasun horiek.

1.2.- Azaleko orriko 1.6 puntuak baimentzen baldin baditu, eskaintza egiten dutenek puntu horretan azaldutako elementu, baldintza eta modalitateei erantzungo dieten barianteak eskaini ahal izango dituzte, eta puntu horretan bertan zehaztutako gehienezko kopuruan.


2.- ARAUAK.

2.1.- Kontratuak ondorengo arauak bete beharko ditu:

- a) Klausula-agiri honetan jasotako klausulak azaleko orrian zehaztutakoaren arabera moldatuta.
- b) LCSP Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- c) RGLCAP Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legeak xedatutakoaren kontra ez dagoen neurrian.
- d) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.
- e) Estatuan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kontratuak arautzen dituzten xedapen guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak baldin badira.

2.2.- Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Eusko Legebiltzarreko Administrazioak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, hitzartutakoa betetzeko erabili beharrekoak gerta badaitezke, enpresa kontratistak horiek guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

3.1.- Legebiltzarreko Administrazioak egindako aurrekontuaren zenbatekoa azaleko orriko 10. puntuan ageri dena da; zenbateko hori, kasua hori bada, 11. puntuan ezarrita dagoen moduan dago urteka banatuta.

3.2.- Legebiltzarreko Administrazioak badu kontratu honen obligazio ekonomikoei aurre egiteko behar beste kreditu, hain zuzen ere, klausula-agiri honen azaleko 11. puntuan aipatzen den aurrekontuko diru-izendapenari esker.

3.3.- Kontratuaren prezioa kontratua esleitzearen ondorioz ateratzen dena izango da eta ezingo da Eusko Legebiltzarrak jarritako aurrekontua baino handiagoa izan.

4. PREZIOAK BERRAZTERTZEA.

4.1.- Enpresa kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua betetzearen arriskuak.

4.2.- Dena den, prezioak berrikusteari dagokionez, negozioa daitekeen jakiteko –azaleko orriko 38. puntuak ezartzen denaren arabera–, klausula-agiri honen azaleko 16. puntuan eta, halakorik baldin badago, bi aldeen arteko itunetan esaten dena bete beharko da, indarrean dagoen legeria kontuan izanda beti.

4.3.- Kontratuak jasotzen ez badu prezioak berraztertzea, zirkunstantzia hori ez da aldatuko egikaritze-epearen luzapenagatik betiere luzapen horren zergatia ez bada Legebiltzarreko Administrazioari egozteko modukoa edo ezinbesteko kasuak gertatu izana, ezinbesteko kasutzat Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 214. artikulua ezarritakoak hartuz.

4.4.- Kontratuak prezioak berraztertzea jasotzen badu, prezioen berraztertze hori egiteko, kontratuari dagokion kostuaren % 20ak burututa egon behar du eta esleitu zenetik urtebete igarota; beraz, ez % 20a ez eta hasi zenetik urtebete igaro artekoa ere, ezin izango dira berraztertu.

5.- HORNIKUNTZAREN IRAUPENA. **5.1.-** Kontratua betetzeko gehienez ere zenbateko epea egongo den edo kontratuak gehienez ere zenbat iraungo duen klausula-agiri honen azaleko orriaren 12. puntuan egongo da jasota, eta tarteka bete beharreko epeei dagokienez, puntu horietako 12.1 puntuak dioena bete beharko da.

5.2.- Kontratua luzatu ahal izateko, kontratuak berak izan behar du berritzeko modukoa. Luzatzeko aukera horrek edo horiek klausula-agiri honen azaleko orriko 13. puntuan egon behar dute jasota, baina kontratuaren iraupena guztira, luzapenak barne, ezingo da lau urte baino luzeagoa izan, eta luzapenak ezin dira erabaki, bakarka nahiz osotara, hasieran ezarri epeaz harago.

6. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

6.1.- Kontratu hau esleitzeko, prozedura negoziatua erabiliko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 122. artikuluan ezarria eta lege bereko 153, 154, 157, 160, 161 eta 162. artikuluetan arautua.

6.2.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak prozedura negoziatua aplikatzea erabaki ahal izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 154 eta 157. artikuluek aipatutako zirkunstantzietakoren bat agertzen denean.

6.3.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak aurretiazko publizitatearekiko prozedura negoziatua aplikatzea erabakiko du bai Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 161. artikulua 1. eta



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

2. lerrokaiek ezarritako kasuetan, eta bai balio estimatua 60.000 eurotik gorakoa duenean ere.

6.4.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, azaleko orriko 2.1 puntuak hala ezartzen baldin badu, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-mahaiaren laguntza izango du.

II.- JARRAITU BEHARREKO TRAMITAZIOA, PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

7.1.- ESKAERAK ETA ESKAINTZAK AURKEZTEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK.


Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten, kasua hori bada, parte hartu duten enpresek ezin izango dute prozedura honetan parte hartu, parte hartze horrek lehia libreaki oztupoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enprekin alderatuta enpresa horren aldeko pribilegioak sortzen baditu.

Azaleko orriko 5. puntuan kontratua erreserbatuz gero bai enplegu-zentro berezietan, bai enplegu babestuko programen esparruan egikaritzeari, langile gehienak gaitzen izatera edo larritasuna dela kausa lan-jarduera baldintza normaletan egiterik ez daukaten pertsona ezinduek direnean, bai beste erreserba-kasu batzuei ere, erreserba hori betetzeko baldintzak bete ditzakeela egiaztatu dezakeenak bakarrik hartu ahal izango du parte.

Parte hartzeko eskaera eta, kasua hori bada, eskaintza aurkezteak esan nahiko du lizitatuak klausula-agiri honetan eta azaleko orrian esaten den guztia baldintzarik gabe onartzen duela, eta orobat kontratuaren gainontzeko dokumentu guzti-guztietan esaten dena ere onartzen duela. Gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adierazten duela ulertuko da, eta hornikuntza kontratatzeko eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela. Interesa duten pertsonak ezingo dute aurkeztu parte-hartze eskaera eta, kasua hori bada, eskaintza bat baino gehiago (hori horrela izanik ere, azaleko orriak bariantek baimendu ditzake kasua hori bada) ez banaka ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa, eta banaka lizitatu nahi duenak ezin izango du izenpetu beste pertsona batzuekin aldi baterako elkartean. Arau horietakoren bat hausten bada, onartu barik geratuko dira lizitatuak arau horiek hautsiz izenpetutako eskabide eta eskaintza guztiak.

Eskaintza postaz bidaliz gero, postetxean bertan egiaztatu beharko da dokumentazioa bidali deneko eguna, eta kontratazio-organismoari jakinarazi beharko dio eskaintza posta bidez bidali dela azaleko orriaren 33.1 puntuan aipatutako bideetako bat erabiliz. Bi egitekoak (proposamena bidaltzea eta eskaintza bidali izana kontratazio-organismoari jakinaraztea) iragarkian edo gonbidapenean adierazitako aurkezte-epaia bukatzen deneko data eta ordua baino lehen egin beharko dira. Bi baldintzak bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, baldin eta esaniko aurkezte-epaia bukatzen deneko data eta ordua igarotakoan jasotzen bada. Dena den, aipatutako egun horretatik hamar egun natural iragan badira proposamena jaso gabe, inolaz ere ez da onartua izango proposamen hori.

7.2.- PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAN ESKAINTZA AURKEZTEKO GONBIDAPENA. Prozedurak aurretiazko publizitaterik ez badu (ikus azaleko orriko 4. puntua), Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izango da kontratuaren xedea egiteko gaitasuna



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

du ten enpresak eskaintza aurkeztera gonbidatu egin beharko dituen a. Daitekeen neurrian, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira beti. Eskaintzak aurkezteko gonbidatzea, eskaintzak jasotzea eta eskaintzei erantzuna ematea espedientean jasota utzi beharko da.

Hasiera batean, ahal bada behintzat, gutxienez hiru enpresari egin beharko zaio eskaintza aurkezteko gonbidapena; Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandakoak izan behar dute enpresa horiek (otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du erregistro hori, Kontratisten Erregistro Ofizialaren eta sailkapenaren gainekoak).


7.3.- IRAGARKI PUBLIKOA, ESKAERA ETA KANDIDATURA-HAUTAKETA, ETA ESKAINTZA AURKEZTEKO GONBIDAPENA AURRETIAZKO PUBLIZITATEAREKIKO PROZEDURA NEGOZIATUAN.

Klausula-agiri honetako azaleko orriko 4. puntuak adierazten baldin badu prozedura honek aurretiazko publizitatea duela, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 126. artikuluan ezartzen den eran argitaratuko da lizitazioaren iragarkia. Aurretiazko publizitatearekiko prozedura negoziatu batean parte hartzea eskatzeko, interesa duten enpresek aurkeztu beharko dute, iragarkian zehaztutako epearen barruan eta klausula-agiri honetako azaleko orriko 33. puntuan zehazten den lekuan, B gutun-azala izeneko gutun-azal bat. Gutun-azal horretan honako xehetasun hauek zehaztu beharko dira: zein kontratutarako aurkezten den proposamena, kasua hori bada lotea edo loteak, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zelako izaerarekin sinatzen duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, dena ere argi irakurtzeko moduan adierazia. Gutun-azalak eskaera sinatzen duenak izenpetuta eta itxita egon beharko du, nahitaez. Eskaera aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez eginez gero, gutun-azala enpresa horiek guztiek sinatu beharko dute.

B gutun-azalaren barruan sartu beharreko dokumentazioa honako hau da: klausula-agiri honetako 7.7 klausulak esandakoa, azaleko orriko 35.4 puntuan adierazitakoa, eta I. eranskinak dakarren ereduaren arabera formulatutako parte-hartze eskaera bat.

Hautagaiak aukeratzea.

Legebiltzarreko Administrazioak, alde z aurretik, B gutun-azalaren edukia aztertuko du eta garaiz eta behar bezala kalifikatuko ditu aurkeztutako dokumentuak. Aurkeztutako dokumentuetan, konpontzeko moduko akatsik edo hutsunerik ikusten baldin baditu, interesatuei jakinaraziko die, ahoz. Epe bat emango zaie lizitatzailaeei, gehienez ere hiru egun balioudunekoa, zuzendu ditzaten. Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, halakorik izatera, akatsak edo hutsak zuzenduta, zehaztu egingo da zer enpresak betetzen dituzten azaleko orriko 34. puntuan finkatutako kaudimen-eskakizunak. Horren ondoren, Legebiltzarreko Administrazioak, azaleko orriko 35. puntuan jarritako irizpide objektiboei jarraituz, onartutako enpresak aukeratuko ditu, eta eskaintza aurkeztera gonbidatuko zaie enpresa horiei. Aukeratutako enpresei, aldi berean eta gutunez edo ofizioz zein telegramaz, telexez edo telekopiaz, beren proposamenak aurkez ditzaten gonbidatuko zaie gonbidapenean bertan zehaztutako epearen barruan. Proposamen edo eskaintzan (A gutun-azala) klausula-agiri honen 7.6. klausulan adierazitako dokumentazioa sartuko da. Gonbidatzeko idazkian aditzera emango da zer toki, egun eta ordutan irekiko den




**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

jendaurrean bai proposamen ekonomikoa bai RGLCAPeko 92. artikulua jasotako gainerako alderdi guztiak. Edonola ere, Legebiltzarreko Administrazioak ez du gonbidatuko kandidatura bat kandidatura horrek betetzen ez baditu gaitasun eta kaudimenari buruzko baldintzak, klausula-agiri honetako 7.7 klausulak eta azaleko orriko 34. puntuak aipatutakoak, edo eta administrazio-klausula berezien agiri honetako azaleko orriko 35. puntuak zehaztutako hautaketa-irizpideetakoren bat betetzen ez badu.

7.4.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA AURRETIAZKO PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAN.

Aurretiazko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak gonbidatutako enpresek aurkeztu egin beharko dute, gonbidapenean jarritako epearen barruan eta klausula-agiri honetako azaleko orriko 33. puntuak adierazitako tokian, A gutun-azala, proposamen ekonomikoa eta dokumentazio teknikoari buruzkoa; eta, azaleko orriko 33.2 puntuan hala jarritz gero, A gutun-azalarekin batera B gutun-azala ere aurkeztuko da, hau da, dokumentazio administratiboa eta gaitasun eta kaudimenari buruzko dokumentazioa. Azaleko orriko 36.3 puntuak balorazio-fase bat baino gehiago aipatzen baldin baditu, gutun-azal kopurua handiagoa izango da klausula-agiri honetako 7.6.5 klausulak xedatzen duen gisan. Gutun-azal bakoitzaren barruan aurrerago zehaztuko den dokumentazioa joango da, eta gutun-azal bakoitzean ondokoak adieraziko dira: zer kontratatara lizitatu nahi den, kasua hori bada, lotea edo loteak, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta nolako izaerarekin sinatzen duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, dena ere argi irakurtzeko moduan adierazia. Gutun-azalek lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta eta itxita egon beharko dute, nahitaez. Enpresa batzuek aldi baterako enpresa-elkartean elkarturik lizitatzen badute, enpresa horiek guztiek beharko dituzte gutun-azalak sinatu. Azaleko orriko 33.2 puntu horrek jasotzen ez baldin badu gaitasunari eta eskaintzari buruzko gutun-azalen aldi bereko aurkezpena, B gutun-azala kontratazio-organoak eskatzen duenean aurkeztuko da.



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO


7.5.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA AURRETIAZKO PUBLIZITATEAREKIKO PROZEDURA NEGOZIATUAN. Aurretiazko publizitatearekiko prozedura negoziatuan, eskaintza aurkeztera gonbidatutako enpresek aurkeztu egin beharko dute, gonbidapenean jarritako epearen barruan eta klausula-agiri honetako azaleko orriko 33. puntuak adierazitako tokian, gutun-azal bat, A gutun-azala izenekoa, aurrerago adieraziko den dokumentazioarekin. Gutun-azal horretan zehaztu beharko da zer kontratutan lizitatu nahi den, kasua hori bada, lotea edo loteak, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta nolako izaerarekin sinatzen duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, dena ere argi irakurtzeko moduan adierazia. Gutun-azalak lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta eta itxita egon beharko du, nahitaez. Enpresa batzuek aldi baterako enpresa-elkartean elkarturik lizitatzen badute, enpresa horiek guztiek beharko dituzte gutun-azalak sinatu.

7.6.- A GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA EDO ESKAINTZA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA. Orri bereizi batean gutun-azalaren barruan dauden guztien zerrenda ekarriko du, zenbakiz azalduta, eta, gainera, ondoko dokumentuak:

7.6.1.- Proposamen ekonomikoa.- Proposamena egiten duen enpresak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen ekonomikoa bakarra aurkeztuko da (proposamena aldi baterako enpresa-elkarteek egiten dutenean, aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute eskaintza hori). Proposamen ekonomikoa hori agiri honetako II. eranskineko ereduaren arabera idatzi beharko da, eskaintzako prezioan kontzeptu guztiak jasoz, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa (BEZ) barne, bai eta eragiketa zergapetu dezakeen beste edozein zerga edo gastu ere, esaterako, garraio- zein entrega-gastuak eta, kasua hori bada, instalatze-gastuak, eta ondasunak eman eta onartu arteko beharrezko aseguru, muga-zerga, lizentzia eta baimenak, bai eta kontratistaren irabaziak ere. Agiriaren azaleko orrian bariantek aurkeztea baimentzen denean, oinarriari buruzko proposamen ekonomikoa gain, gutun-azal horren barruan proposamen ekonomikoa bat ere sartu liteke lizitatzailerak formulatutako bariante bakoitzeko.

Bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa ere II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera egingo da eta aurreko paragrafoan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu. Aleko prezioak eta beste erlazio batzuk.- Proposamen ekonomikoa ereduaren arabera eta batera doan eranskinean hala jarritz gero, ondasunen aleko prezioak ere sartu beharko dira, edo eta esaniko eranskinak kasuan-kasuan eskatutako beharrezko erlazioa.

7.4.8.- Azaleko orriko 18.1 puntuak hala eskatzen duelarik, lizitatzailerak behin-behineko bermea utzi beharko du, ezingo dena izan kontratuaren aurrekontuaren % 3 baino gehiago eta jarraian azalduko den eran osatuko da: Bermea esku-dirutan edo zor publikoaren balioetan osatu ahal izango da. Berme hori, bestalde, banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal bidez ere osatu ahal izango da, behar bezala baimendutako erakundeak baldin badira. Baita kauzio-aseguru baten kontratu bidez ere, baldin eta



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

aseguru hori Espainian kauzioaren arloan jarduteko baimena duen aseguru-etxe batek emandakoa bada. Dirua, tituluak, egiaztagiriak, abala edo kauzio-aseguruaren kontratuaren poliza Eusko Legebiltzarreko Kontu Hartzailtzan ezarriko dira. Kontu Hartzailtzan ez da behin-behineko bermerik jarri beharko berme hori abal baten bidez edo kaudimeneko aseguru-kontratuaren bidez egin denean. Horrelakoetan, Eusko Legebiltzarraren Mahaiaren aurrean jarriko da berme hori. Behin-behineko bermearen ordeiz, Eusko Legebiltzarreko Kontu Hartzailtzak emandako egiaztagiria aurkeztu ahal izango da, eta egiaztagiri horretan hau adierazi beharko da: berme orokorra badagoela, berme hori nahikoa dela eta egin beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela. Hainbat enpresak bat egin badute aldi baterako, enpresa horietako batek edo batzuek jar dezakete behin-behineko bermea, baina, guztira, azaleko orriko 18.1 puntuan eskatzen den kopurura iritsi beharko dute, eta aldi baterako elkartutako enpresok elkar bermatu beharko dute solidarioki. **7.6.3.-** Ondasunen ezaugarriak argi eta labur agertzen dituen azalpena, marka, mota eta modeloa zehaztuta.

Eskaintza hobeto ezagutzeko, deskripzio-planoak, eskemak eta argigarri den beste edozein informazio sartu ahal izango da azalpen horretan. Kontratazio honi dagokionez, kontsultatzeko material lagungarritzat joko dira eskaintzen diren ekipo edo materialei buruzko liburuxkak.

7.6.4.- Azaleko orriko 37. puntuan hala eskatuz gero, hala dagokionean, azaleko 35.2 puntuan ezarritako esleitze-irizpideak baloratzeko dokumentuak gehitu beharko dira. Aipatutako 35.2 puntuan jarritako esleitze-irizpideen artean "beste hobekuntza batzuk" kontzeptua ageri baldin bada, hau da, "esleipena egiteko bestelako irizpideetan xedatutako eta sartu gabeko betebeharrei gehitutako prestazioak", ondokoa hartuko da kontuan: Aipatutako hobekuntzek ez dute gehituko kontratuaren prezioa, III. eranskineko ereduaren arabera eskainiko dira, eta kontratuaren parte izango dira Administrazioak berariaz onesten baldin baditu. Hobekuntza horiek, kontzeptuaren enuntziatuan jasotako ezaugarriekin, libreki eskaini ahal izango dira salbu eta azaleko orriko 37.1 puntuak muga eta baldintza zehatzak ezartzen baditu, kasu horretan muga eta baldintza zehatz horiek errespetatzen ez dituzten hobekuntzak ez baitira aintzat hartuko. Nolanahi ere, eskaintako hobekuntzetako bakoitza beregainekotzat jotzen da; beraz, kontratazio-organismoak aukeran izango du kontratuaren barruan hobekuntzetako bat, batzuk edo eta bat ere ez sartzea.

7.6.5.- Azaleko orriko 36.3 puntuak esleitze-irizpideak baloratzeko fase bat baino gehiago jasotzen baldin badu, «A» gutun-azalean bakar-bakarrik oinarritzko proposamen ekonomikoa sartuko da, eta kasua hori bada barianteei dagozkienak. Gainera, jarritako balorazio-fase adina gutun-azal aurkeztuko dira (prezioari dagokiona izan ezik). Gutun-azal horietako bakoitzean balorazio-fase bati dagokion dokumentazioa sartuko da. Gutun-azal bakoitzak dagokion balorazio-fasea identifikatuko du bai azaleko orriko 36.3 puntuan izendatutako balorazio-fasearen zenbakia, eta bai agiri honetako 7.4 eta 7.5 klausuletan zehaztutako gainerako datuak ere aipatuz.


7.6.6.- Azaleko orriko 1.6 puntuak baimentzen duenean, barianteak aurkeztu nahi dituztenek, proposamen ekonomikoarekin batera, aurkeztutako barianteei buruzko dokumentuak ere sartu beharko dituzte gutun-azal honetan.

7.6.7.- Beharrezkoa irudituz gero, enpresak azaldu ahal izango du, VI. eranskinak



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

dakarren ereduari jarraituz, gutun-azal honetan sartutako eskaintzaren informazio eta alderdietatik zein jotzen dituen isilpekotzat sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik. Hala ere, egindako proposamen ekonomikoa inoiz ez da isilpekoa izango.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

7.7.- B GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA, BAI ETA GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKOA ERE. Publizitatearekiko prozedura negoziatuari dagokionez, agiri honen 7.3 klausularen hirugarren paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe, prozedura negoziatuen B gutun-azalak honako dokumentu hauek jasoko ditu, horiekin batera, aparteko orri batean, bere edukien zerrenda aurkeztuko da, honako hauek zenbakiz azalduta:

7.7.1.- Norberaren izenean edo besteren ahalorde modura izanik proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiri nazionala.


7.7.2.- Eskaintza-egilea pertsona juridikoa bada, Merkataritzako Erregistroan harturiko eraketa-eskiriturak edo aldaketen eskiriturak. Agiriok aurkeztu beharko dira baldin eta merkataritzako legeek Merkataritza Erregistroan izena emanda egoteko agintzen badute. Merkataritza-legeek Erregistroan izena emateko agindu ezean, hauetako bat aurkeztu beharko du lizitatzailleak: sorrerako eskitura edo agiria; aldaketen agiria; estatutuak edo, bestela, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituen sorrera-egintza, biak ere dagokion erregistro ofizialean inskribatuak. Interesa duten enpresek egiaztatu egin beharko dute kontratuak xede duen jarduera edo prestazioa egiteko, kasua hori bada, eskatu beharreko enpresa- edo lanbide-mailako gaitzea.

7.7.3.- Eskaintza-egilea ez baldin bada bere izenean ari, edo sozietate edo pertsona juridikoren bat baldin bada, ahalordetzea aurkeztu beharko du, ordezkaten duen sozietatearen edo entitatearen ordezeko agertzeko adinakoa. Ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan egon beharko du behar bezala inskribatuta. Merkataritza Erregistroko Arautegiko 94.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetzea hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan jasota egon beharrik.

7.7.4.- Agiri bat, berariaz aipatuz kontratu zehatzaren erreferentzia, enpresari Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluko 1. eta 2. lerrokadetan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere ez diola eragiten egiaztatzeko. Egiaztapen hori lekukotza judizial edo administrazio-egiaztagiri bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritza eskudunak ezin baldin badu dokumentu hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (V. eranskina), agintaritza administratibo, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandakoa.

Erantzukizunpeko adierazpen horretan, lizitatzailleak berariaz aipatu beharko du beteak dituela indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, kontratuaren esleipendun izango den enpresari behin-behineko esleipena egin baino lehen exijituko zaio zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak izatearen egiaztapen hori, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluan aipatzen den eran egin beharko dena, eta gehienez ere 5 egun balioudun emango zaio horretarako.

7.7.5.- Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda duten enpresek, kontratatze gaitasuna dutela egiaztatzen duen indarreko agiria kopia aurkeztu beharko dute. Egiaztagiri hori erregistroko legelari arduradunak eman beharko du. Horrela eginda, lizitatzailleok ez dute aurkeztu eta egiaztatu beharrik izango klausula-agiri honetako 7.7.1, 7.7.2, 7.7.3 eta 7.7.4 puntuetan zehazten diren



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**


dokumentuak eta zehaztasunak. Kontratisten Erregistro Ofizialaren egiaztagiria aurkeztuagatik, 7.7.7 klausulan aurreikusitako dokumentuak ere aurkeztu beharko dituzte, bai eta 7.7.6 puntuak aipatutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja emanda ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena ere. Aurreko lerrokadetan jasotako balio bera eta ondorio berak eman beharko zaizkio Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean inskribatua egoteari.

7.7.6.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, ekitaldi honetako alta, edo azken ordainagiria, kontratuaren xedea adierazten duen epigrafean, betiere enpresak zerga horrekin zerikusia duten jarduerak egiten baditu, edo aurkezte-datan burutzen ari diren jardueri dagokionez, jarduera horiek burutzen dituzten lurralde-eremuan burutzeko ahalmena ematen diena. Altaz edo azken ordainagiriaz gain, esaniko zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da.

7.7.7.- Kaudimenari buruzko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa edo harekin batera aurkeztu beharrekoa: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen teknikoari buruzko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, agiri honetako azaleko orriko 34.1. puntu horretan xedatzen den arabera. Azaleko orriko 34.2 puntuak aipatutako IV. eranskinak exijitzen baldin badu bitarteko pertsonal eta materialak atxikitzeko konpromisoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 53. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusia, lizitatzailak sinaturik aurkeztu beharko du baliabideak atxikitze konpromiso hori zeinak, gutxienez, IV. eranskinak dakartzan baliabide pertsonal eta materialak jasoko dituen. Agiri honetako 9.3 klausulak jasotako esleitze-lehentasunak aplikatzeko eta egiaztatzeko, ondoko dokumentuak ekarri beharko dira: 1. Esaniko klausulako a) idatz-zatian aipatutako lehentasunerako, Gizarte Segurantzako TC2 dokumentua –enpresa osatzen duen pertsonala egiaztatzen duena– eta hautagaiak sinatutako adierazpena aditzera emanez zenbat langilek duten % 33 edo gehiagoko ahalmen-urritasuna, haien NAN zenbakiak ere azaltzen dituena. 2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen seigarren xedapen gehigarrian jasotako kolektiboetako pertsonekin gutxienez lanpostuen % 30 kontratatze lizitatzailaren konpromiso formala, eta Enplegua Ugaltzeari eta Haren Kalitatea Hobetzeari Begira Lan Merkatuaren Erreformatarako Premiazko Neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzen duela egiaztatzen duen egiaztagiria. Delako klausulako c) idatz-zatian aipatutako lehentasunerako, erakundea bidezko merkataritzakoa dela egiaztatzen duena. Delako klausulako d) idatz-zatian aipatutako lehentasunerako, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egotea. Eta orokorrean, gainera, lehentasuna aplikatzeko legediak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak.

7.7.8.- Beharrezkoa irudituz gero, enpresak azaldu ahal izango du, VI. eranskinak dakarren ereduari jarraituz, gutun-azal honetan sartutako dokumentuen informazio eta alderdietatik zein jotzen dituen isilpekotzat sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik.

7.7.9.- Baldin eta hainbat enpresa aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuta aurkezten badira lizitaziora, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna eta baduela kaudimena, aurreko klausuletan jarritakoari jarraituz, hau da, B gutun-azalari dagokion



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

dokumentazioa kide guzti-guztiek aurkeztu beharko dute, salbu eta behin-behineko bermea zeina enpresa horietako batek edo batzuek osatu ahal izango baitute, betiere guztira agiri honetako azaleko orriko 18. puntuan eskatzen den kopurura iristen bada eta aldi baterako elkarte osatzen duten enpresa guztiei solidarioki bermatzen bazaie. Aldi baterako elkarte bidez lizitatzen dutenek proposamen-idazki bat ere aurkeztu beharko dute non adieraziko baitira elkarte hori sinatzen duten enpresen izenak eta egoera, nola parte hartzen duen bakoitzak eta zer pertsona fisiko izendatzen duten ordezkari edo ahalorde. Ordezkari edo ahalorde horrek bakarra izan beharko du eta behar besteko boterea beharko du kontratutik sortutako eskubideak gauzatu eta betebeharrak bete ahal izateko. Dena den, era berean, botere mankomunatuak ere izan litezke, kopuru handiak eskuratu edo ordaindu behar direnetarako. Esleipena eskuratuz gero aldi baterako enpresa-elkarte formalki osatuko dutela ere adierazi beharko da. Elkarteko enpresa bakoitzeko ordezkariak izenpetu beharko dute dokumentu hori. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen baldin bazaio, orduan bakarrik egin beharko da elkarte eratzeko eskritura publikoa.

7.8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AZALPENAK.

7.8.1.- Eskatzen diren dokumentuen jatorrizkoak edo haien kopiak aurkeztu beharko dira; kopiak aurkezten badira, Legebiltzarreko Administrazioak edo notarioren batek behar bezala konpultsatuta egon beharko dute. Hala ere, behin-behineko bermea osatu izana egiaztatzen duten dokumentuek jatorrizkoak izan beharko dute beti.

7.8.2.- Espainiakoak ez baina Europar Batasunekoak diren enpresek nahiz atzerriko gainerako enpresek B gutun-azalean aurkeztu beharreko dokumentuei dagokienez, klausula-agiri honetako VII. eranskinean esaten dena bete beharko da.

7.8.3.- Esleitzearen kontrako errekursoak aurkezteko epea amaitu eta ez baldin badu inork bat ere aurkeztu, proposamenekin batera doazen dokumentuak lizitatu dutenen eskura geratuko dira. Hala ere, behin betiko esleipena emanda hiru hilabeteko epea igaro ostean, Legebiltzarreko Administrazioak erabaki ahal izango du lizitatu dutenek aurkeztutako dokumentuak desegitea, baldin eta lizitatzailoek ez badute dokumentazio hori jaso.

7.8.4.- Aurkeztutako dokumentazioak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean (euskaraz edo gaztelaniaz) idatzita beharko du egon. Beste hizkuntza batean idatzita baldin badago, dagokion itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko da.


7.9.-ESKAINITAKO EREDUAK AZTERTZEA ETA DOKUMENTAZIOA EGIAZTATZEA.

Eskaintzen diren eredu guztiak aztertu ahal izango dira, horrela ebazten badu Legebiltzarreko Administrazioak. Lizitatzailoek esango zaien egoitzara eramateko konpromisoa hartuko dute. Legebiltzarreko Administrazioak egiaztatuta ahal izango du, bai kontratua esleitu aurretik bai ondoren eta bai kontratua indarrean dagoela ere, gutun-azalean sartutako dokumentuak egiazkoak direnez. Enpresak emandako datuak eta zehaztasunak gezurrezkoak badira, hori kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, kasua hori bada, enpresa lizitatzailari egozteko moduko hutsegitea izateagatik. Horrek behin-behineko bermea galtzea ekarriko du, edo, kasua hori bada, berme horren adinako kalte-ordaina ordaindu beharra bermerik jarri ez bada edo jartzeko exijitzen ez bada agiriaren azaleko orriko 18. puntuan. Gainera, eragindako kalte eta galerak bermetzat jarritako kopuruaz gorakoak badira,



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Legebiltzarreko Administrazioari bermeaz gorako alde hori ere ordaindu beharko zaio. **III.- JARDUKETAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA 8.1.- JARDUKETAK AZTERTZEA ETA ESKAINTZAK IREKITZEA.** Aurretiazko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan, azaleko orriko 33.2 puntuan xedatzen bada A gutun-azala B gutun-azalarekin batera aurkeztuko dela, jardunean ari den kontratazio-mahaiak B gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak aztertuko ditu aurretiaz eta, aurkeztutako dokumentuotan konpontzeko moduko akatsik edo hutsunerik ikusten badu, interesatuari jakinaraziko dio. Aurretiazko publizitatearekiko prozedura negoziatu guztietan, eta eskaintzak jendurrean irekitzea erabaki den publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan (ikus azaleko orriaren 2.2 puntua), A gutun-azalak (proposamen ekonomikoak) iragarkian, edo hala dagokionean, gonbidapenean zehaztutako toki, egun eta orduan irekiko dira. Azaleko orriak esleipen-irizpideak baloratzeko zenbait fase aurreikusten dituenean, proposamen ekonomikoak jendurrean ireki aurretik, onartutako enpresen eskaintza teknikoaren balorazioaren emaitzen berri emango da.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

8.2.- NEGOZIAZIOA.

8.2.1.- Aurkeztutako eskaintzak ikusita, kontratazio-mahaiak negoziagarriak diren zenbait alderdi hobetu daitezkeela uste badu, kontratua egiteko helburua duten kontsultak eta negoziazioak hasia adostu ahal izango du enprekin. a) Azaleko orriaren 38. puntuak negoziatutik kanpo uzten ez baditu, honako alderdi hauek izango dira negoziagarri: - Oinarri teknikoen edo kontratuaren prestazioa emateko baldintzen agiria. - Aurrekontua eta banakako prezioak. -

Prezioen berrikuspena, indarrean dagoen legeriak horri buruz zer dioen kontuan hartuta. - Burutzeko epea. - Enpresa kontratistari ordainketak egiteko maiztasuna. - Berme-epea, legeak kasuan kasu ezarritako mugen barruan. b) Inola ere ez dira negoziatu ahal izango klausula-agiri honetan ageri diren kontratuaren gai hauek: - Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak. - Kontratua formalizatzea. - Konturako abonauk. - Enpresa kontratistaren betebeharrak. - Kontratuaren zuzendaritza. - Kontratuaren lagapena eta azpikontratutzea. - Kontratua aldatzea. - Likidazioa. - Bermea itzultzea. - Kontratua ez betetzea. - Epeak ez betetzea. **8.2.2.-**


Legebiltzarreko Administrazioak askatasun osoz negoziatu ahal izango ditu kontratuaren baldintzak, horiek zehazteko.

8.2.3.- Administrazioak aurkeztutako kontratutik dokumentuen edukia eta enpresaren jatorrizko eskaintzaren edukia aldatzen duten negoziazioaren alderdiak jasoko dituen akta sinatu beharko dute Legebiltzarreko Administrazioak eta enpresak.

8.2.4.- Aldeetako batek negoziazioa hautsita ere, ez da kontratua egin aurreko erantzukizunik sortuko, non eta beste aldeak fede onaren aurkako jokoerarik izan ez duen.

IV.- KONTRATUA ESLEITUKO ZAION ENPRESA AUKERATZEA. 9.1.- Gutun azalak ireki, dokumentazioa aztertu eta, hala dagokionean, negoziazio-prozesua burutu denean, kontratazio-mahaiak (osatu egin bada) edo halakorik ez dagoenean, prozedura tramitatzen duen zerbitzuak, esleipen-proposamena egingo du esleipen-irizpide objektiboak aplikatuz, horiek azaleko orriaren 32.2 puntuan ezarri badira, eta ezarri ez badira, hautaketa justifikatzen duten arrazoiak adieraziz.

9.2.- LEHENTASUNAK ESLEITZEAN. Behin eskaintza abantailatsuna erabakita, eta behin-behineko esleipen-proposamena egin aurretik, esleipeneko lehentasunak aplikatuko ditu kontratazio-mahaiak, betiere honako baldintzak hauek emanez gero: Baldin eta lizitatuak aurkeztu bada klausula-agiri honetako 7.7.7 c) klausulan aipatutako dokumentazioa, esleipena egiteko orduan lehentasuna izango dute honako enpresa hauek, betiere esleipeneko irizpide objektiboen ikuspuntutik abantailatsuna den proposamena berdinduz gero: Kaudimen teknikoa egiaztatzeke unean langile ezinduei dagokienez bere plantillan portzentaje handiena duen enpresa, baldin eta portzentaje hori plantillaren % 2 baino txikiagoa ez bada. Gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak lan-munduratzeko eta sustatzeko lanetan espezifikoki ari diren enpresak, Enplegua Ugaltzeari eta Haren Kalitatea Hobetzeari Begira Lan Merkatuaren Erreformarako Premiazko Neurriek buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian araututa daudenak. Baldin eta bidezko merkataritzazko alternatiba duten produktuak badira kontratuen xede, bidezko merkataritzako erakunde gisa errekonozitutako erakundeak.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

Izaera sozial edo asistentzialeko prestazioei buruzko kontratuak badira, aurkeztutako enpresen artean irabazi asmorik gabeak direnak. Lehenetsuna aplikatzeko orduan, ezaugarri bat baino gehiago biltzen duen enpresaren proposamenari emango zaio lehenetsuna. Berdinketarik gertatuz gero, lehenetsun-ordenaren arabera, lehenetsunezko esleipenaren irizpidean puntuazio hobea duen eskaintzaren alde ebatziko da. Halakorik ez balego, zozketa bidez. Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, lizitatzailer bakoitzak elkartean duen portzentajearen arabera aplikatuko dira lehenetsunak.

9.3.- HAUTAKETA ARRAZOITZEKO ZERBITZUAK EGINDAKO TXOSTENA. Azkenik, kontratazio-mahaiak edo kontratazioa sustatu duen zerbitzuak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dizkio proposamen horiek –ordena beherakorrean sailkatuta–, aktak eta aurkeztutako gainerako agiri teknikoak, eta orobat behin-behineko esleipen-proposamena eta egoki irizitako oharrak. Esleipen-proposamena egin baino lehen, eskaintza-egileei eskatu ahal izango zaie idatziz adieraz ditzatela eskaintzetako alderdiren bat ulertzeko beharrezko diren argibideak. Inola ere ez da onartuko, argibide-prozedura horretan, enpresa lizitatzailerak eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzea. Hasieran proposatutako irtenbidearen azterketa erraztuko duen informazioa soilik izango da kontuan.

V.- KONTRATUA ESLEITzea 10.- KONTRATUAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEA. 10.1-

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratuaren behin-behineko esleipena egingo du, ezarritako esleipen-irizpideak kontuan izanda, proposamenik onena egin duen enpresa lizitatzaileraren alde.

10.2.- Behin-behineko esleipenaren ebazpen motibatua lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie eta aldizkari ofizial batean edo Eusko Legebiltzarren kontratatzaile-soslaian argitaratu beharko da. **10.3.-** Behin-behineko esleipena ezingo da behin betiko esleipen bihurtzea erabaki, harik eta hamabost egun baliiodun igaro arte behin betiko esleipen hori aldizkari ofizial batean edo Eusko Legebiltzarren kontratatzaile-soslaian argitaratzen den biharamunetik hasita.

10.4.- Hamabost eguneko epe horretan, enpresa esleipendunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta kontratatzeko gaitasuna baduela edo Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 53.2 artikularen arabera, kontratua gauzatze aldera konprometitutako edo esleitutako baliabideak kontratatzeko gaitasuna edo baliabide horiek badituela egiaztatzeko beste edozein dokumentu ere. Halaber, eskatzen baldin bada, dagokion bermea ere eratu beharko du. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea egiaztatzeko, dagozkien ogasunek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hartarako egindako ziurtagiri administratiboak aurkeztu beharko dira, edo eskakizun horiek betetzeari buruz Kontratisten Erregistro Ofizialak eginda indarrean dagoen ziurtagiria, Herri administrazioen kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikulua aurreikusitako norainokoan eta eran. Hala ere, enpresak aurkeztu behar ez baditu Herri Administrazioen kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. artikulua (zerga-betebeharrak) eta 14. artikulua



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

(Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak) aipatzen dituzten aitortpenak edo dokumentuak, egoera hori egiaztatu egin beharko da erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

10.5.- Kontratuaren behin betiko esleipena ezin baldin bazaio behin-behineko esleipena egin zaion enpresari egin, ez dituelako betetzen hartarako beharrezko baldintzak, orduan, deialdi berri bat egin baino lehen, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak behin-behineko esleipena egingo ahal izango dio haren hurrengoko enpresari edo enpresei, betiere, hori posible bada eta esleipendun berriak bere adostasuna ematen badu. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

10.6.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, oinarri sendoz uste duenean proposamena ezingo dela bete, bertan balio anormalak edo neurritz gaineakoak sartu direlako, behin-behineko esleipena ez da egingo. Halako kasuetan, proposamena egin duen enpresari entzun egingo zaio, eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta eskaintzaren baldintzak zehaztu ditzan. Prozedura horretan kasuan kasuko zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak uste baldin badu eskaintza ezin dela bete, ekonomikoki onuragarriena den hurrengo proposamenaren alde egingo da behin-behineko esleipena, betiere Legebiltzarreko Administrazioak nahi bezala bete daitekeela uste bada eta anormaltzat edo neurrigabetzat jotzen ez bada.

10.7.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan behin-behineko esleipena baztertu ahal izango da, behin betiko esleipena bakarrik utziz. Behin betiko esleipen horrek ez du klausula-agiri honetako 10.3 klausulan ezarritako epea bete beharrik izango, baina esleipena jasotzen duen enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatu beharko du, bai eta dagokion bermea eratu ere.

11.- KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.

11.1.- Kontratuaren behin-behineko esleipena behin betiko bihurtu beharko da, 10.3 klausulan adierazitako epea bukatzen den biharamunetik hasita hurrengo hamar egun balioduneko epean. Hartarako, beharrezkoa izango da proposatutako enpresak aipatutako dokumentazioa aurkeztu izana eta behin betiko bermea eratu izana, halakorik exijitzerik baldin badago. Nolanahi ere, behin-behineko esleipena berrikusi ahal izango da errekurtsio berezi bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.2.- Behin kontratuaren esleipena erabakita, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraituz.

11.3.- Halaber, SPKLko 138. artikuluan aurreikusita dagoen publizitatea emango zaie esleipenei. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak esleipenari buruzko informazioa ez jakinarazteko eta ez argitaratzeko ahalmena edukiko du kontratuak konfidentzial izaera badu.

VI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

12.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK. Behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso ondoren, enpresa esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu kontratua formalizatzeko dagoen hamar egun balioduneko epearen barruan:

12.1.- Aldizkari ofizialetako iragarkien gastuak ordaindu direla egiaztatzea. Kontuan izan behar da enpresa esleipendunak behin bakarrik ordaindu beharko dituela kontratuen iragarkiak Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

12.2.- Baldin eta lanak aldi baterako enpresa-elkarte bati esleitzen bazaizkio, enpresa horiek elkarte horren eraketa egiaztatu beharko dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, bai eta aldi baterako enpresa-elkarteari izendatutako identifikazio fiskaleko kodea.

13.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

13.1.- Kontratua formalizatzeko dokumentua esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar egun balioduneko epean emango da. Dokumentu hori administrazio-agiria izango da, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 71. artikuluan aipatutakoarekin bat etorri beharko du.

13.2.- Enpresari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua goian aipatutako epe horretan ezin bada formalizatu, Legebiltzarreko Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere nahitaez alde zuzenetik interesdunari entzunda.

Halako erabakia hartzen denean, kontratistari behin-behineko bermea kendu egingo zaio eta eragindako kalte eta galerak ordain ditzala eskatuko zaio.

VII.- KONTRATUA EGIKARITZEA 14.- EGIKARITZEAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKARITZA.


14.1.- Kontratua Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren menpean exekutatu da. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak beharrezko jarraibideak eman ahal izango ditu hitzartutakoa behar bezala betetzen den begiratzeko.

14.2.- Hala ere, aipatutako zeregin hori kontratuaren zuzendaritzak eraman ahal izango du aurrera. Zuzendariak titulazio egokia eta nahikoa izan beharko du, eta bera izango da, halaber, hitzartutako horniketa behar bezala egiten ote den egiaztatzeko arduraduna.

Bere lana egiteko, hainbat laguntzaile izan dezake agindupean. Laguntzaileok, bere titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera egingo dute lan, eta horniketako zuzendaritza osatuko dute. Legebiltzarreko Administrazioak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio enpresa kontratistari kontratua egin eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta zuzendaritza horrek, era berean, epe hori bera izango du laguntzaileen berri emateko. Zuzendaria edo laguntzaile-talde hori aldatu behar izanez gero, hori ere kontratistari jakinarazi beharko zaio.

15.- KONTRATUA EGIKARITZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK.

15.1.- Entrega egiteko denbora eta epea.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**


Klausulen azaleko orriko 1. puntuan aipatutako ondasunak noiz eta non entregatu behar dituen orri horretako 12. eta 21. puntuetan dago zehaztuta, eta enpresa kontratistak hala egin beharko du derrigor, eta betebeharrak teknikoak eta administrazio-klausulen arabera jokatuta gainera. Hala ere, kontratua betetzen ari diren bitartean, Legebiltzarreko Administrazioak nahi badu, azaleko orriko 21. puntuan zehaztutako lekua ez den beste batean ezar dezake entrega-lekua, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

15.2.- Kontratuaren iraupena eta entrega-epeak. Azaleko orriko 12. puntuan zehaztutakoak izango dira kontratuaren iraupena eta/edo ondasuna edo ondasunak entregatzeko epeak. Horniketa sustatu duen erakundeak edo unitateak enpresa kontratistari zerbitzua ematen hasteko agintzen dion egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen epe horiek. Agindu hori idatziz, edo hala agindu diola jasota uzteko moduko beste edozein erataria emango dio, baina ezingo du izan kontratuaren formalizazio-eguna baino lehenago. Berehalakoa izapidetu beharreko espedienteetan –hala deklaratu direnetan, alegia-, azaleko orriko 18. puntuko behin betiko bermea osatuta badago, kontratua formalizatu gabe ere agindu dezake Legebiltzarreko Administrazioak kontratu hori betetzen hasteko. Klausula-agiri honetako 7.6.2 klausulan dago zehaztuta nola osatu beharko den berme hori. Enpresa kontratista berandu ibiltzeak ez dakar Legebiltzarreko Administrazioak aurrez kargu hartu beharra.

15.3.- Ondasunak ordezkatzeko. Legebiltzarreko Administrazioak, esleitutako kontratua bitarteko, eta kontratu hori betetzen ari den bitartean, oinarri teknikoak agirian eta agiri honetan zehaztutako eta aurreikusitako hornigaiak enpresa lizitatuaren proposamenetan jasotako prezioetan eskuratu ahal izango ditu, modeloak modelo eta markak marka. Alde horretatik, hitzartutako ondasunen ordezkariak beste hobeago batzuk ekarri nahi baldin baditu, enpresak hala proposatu ahal izango dio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz beti, bai eta hitzartutako baldintzak era batera edo bestera hobetu nahi baditu ere, baina kontratuaren xedearen prestazioetatik bestelakoak ez diren kasuan. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, hornigaiak kudeatzeko organoaren eta zerbitzu juridikoaren txostena aztertu ondoren, erabakitzen badu komenigarria dela egindako proposamen berri hori onartzea, hartarako baimena eman ahal izango du ebazpen bidez, espedienteetan hori ondo jasota utziz. Nolanahi ere, enpresak ez du inolako ordain berezirik jasotzeko eskubiderik izango, bakar-bakarrik kontratuan hitzartutako prezioa ordaindua izatea.

15.4.- Hurrenez hurrengo entregaren zenbatekoa. Hainbat ondasun hurrenez hurren ekartzea bada egin beharreko horniketa-lana eta prezioa unitatetako bada, Legebiltzarreko Administrazioaren beharren arabera izango da ondasunen kopurua, eta ez dago gutxienezko bat eskuratzeko inolako obligaziorik.

15.5.- Instalazioa. Baldin eta produktuak edo ondasunak higigarriak badira eta instalatu, funtzionamenduan jarri edo martxan ipini beharra badaukate, enpresa kontratista behartuta egongo da lan horiek egitera, oinarri teknikoak agirian zehazten den bezala, eta eskaini zuen prezioaren barruan sartuta egongo da lan horien prezioa ere.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

15.6.- Ondasunak eta jarraibideak jasotzea. Zuzendaritza kontratugileak delako hornigaia jasotzen duenean, orduan dago eginda entrega, kontratuko baldintzen arabera. Nolanahi ere, jasotze horrek, erabatekoa edo zatikakoa izanda ere, zuzendaritza horren egintza formal eta positiboa eskatuko du, eta egintza hori jasotze-aktaren bidez dokumentatuko da, zuzendaritza horrek berak egingo duena. Jasotze-egintza entregaren ondoren egiten baldin bada, Legebiltzarreko Administrazioa arduratuko da ondasunak zaintzeaz bataren eta bestearen arteko denbora tartean. Kontratua nola bete, hitzartutakoa nola jaso, entrega hori nola izapidetu, kitapena nola egin edo ordainketa nola egin argitze aldera, horniketa kontratatze eskudunak diren organoek, beren eskumenen eremuan, egokitzen jotzen dituzten jarraibideak eman ahal izango dituzte. Jarraibide horiek, ordea, ezingo dute kontraesanegon egon sektore publikoko kontratuak erregulatzeko legerian eta klausula-agiri honetan xedatutakoarekin.

15.7.- Administrazioaren berandutza jasotzean. Bidezko arrazoirik gabe Legebiltzarreko Administrazioak hornigaiak berandu jasotzen baditu, enpresa kontratistak salatu egin beharko du, ondorioak izan ditzan. Halakoetan, ondasunak entregatzen eta jasotzen diren bitarte horretan, Legebiltzarreko Administrazioak izango du ondasun horiek zaintzeko ardura.

15.8.- Galerak edo kalteak entrega egin aurretik. Legebiltzarreko Administrazioaren esku utzi aurretik, ondasunak galdu edo hondatu egiten bazaizkio edo kalterik sotzen badio, enpresa esleipendunak ez du izango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, hornigaia edozein delarik ere, non eta Legebiltzarreko Administrazioa bera ez den hornigaia berandu jaso duena.


15.9.- Entrega-, garraio- eta instalazio-gastuak. Hornigaiak hitzartutako tokian entregatzeko, haraino garraiatzeko eta han instalatzeko gastuak enpresa esleipendunak berak ordaindu beharko ditu, eta eskaintzaren barruan sartuta egon beharko dute, agiri honetako 7.6.1 klausulan jartzen duen moduan.

15.10.- Isilpekotasuna. Kontratuak izaera konfidentziala edukiko du. Beraz, enpresa hornitzaileak ezin izango du beretzat erabili edo hirugarren bati eman kontratatutako prestazioetako datu edo informaziorik, Legebiltzarreko Administrazioaren idatzizko baimenik gabe. Ondorioz, enpresa behartuta egongo da informazioaren eta egindako lanaren izaera konfidentzial eta erreserbatu hori gordetze aldera, bere esku dauden neurri guztiak jartzera.

16.- ENPRESA KONTRATISTAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK.

16.1.- Enpresa kontratistak lan arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bai eta Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak ere, eta orobat kontratuaren exekuzioan zehar indarrean sartzen direnak. Betebehar horiek betetzen ez baditu, horrek ez dakar inolako erantzukizunik Legebiltzarreko Administrazioarentzat.

16.2.- Horniketa egikaritzeko lanen ondorioz kalterik edo galerarik eraginez gero inori, enpresa kontratistak ordaindu beharko ditu kalte-ordainak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 198. artikuluan xedaturikoaren arabera.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

16.3.- Beharrezko lizentzia eta administrazio-baimenak lortzea enpresa esleipendunaren kontura izango da beti, baita ondasunak inportatzeko bada ere, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

16.4.- Horniketa-kontratu batzuetan baliteke Legebiltzarreko Administrazioak jartzea beharrezko material guztiak edo batzuk. Halakoetan, ondasunak esleipena duen enpresaren ardurapean egongo dira, zeinak zaindu eta atzera itzuli egin beharko baititu. Ondasun horiek zaintzea edo galtzea dela-eta, Kode Zibilean, Merkataritzako Kodean eta Zigor Kodean xedaturik dagoena bete beharko da.

16.5.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.- Esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu erabilera-eskuliburua edo kontratuak xede dituen ondasun edo produktuen dokumentazioa, softwarearen testu- eta soinu-interfazeak barne hartuta.

Kontratuaren ondorioz Legebiltzarreko Administrazioarekin izan beharreko harremanetan euskara erabiliko da kontratuaren gauzatzeari dagozkionetan, betiere, enpresa kontratistaren egoera soziolinguistikoak horretarako aukera ematen badu. Horretarako: a) Legebiltzarreko Administrazioarekiko harremana euskaraz gauza dadin ahalbidetzeko, euskarazko behar adinako gaitasun linguistikoa duten langileak izendatuko ditu enpresa kontratistak kontratua gauzatzeko eginkizunetarako. Ondorioz, kontratua egikaritzeko izendatzen diren langileen eta Legebiltzarreko Administrazioaren arteko ahozko harremanak, euskaraz gauzatu dira nagusiki. b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak eta hartzaileak euskara hautatzen dutenean izan ezik.

16.6.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, sozialak edo ingurumenekoak. - Azaleko orriko 32. puntuan hala aurreikusi bada, enpresa esleipendunak puntu horretan zehaztutako gizarte- edo ingurumen-baldintza bereziak aplikatuko ditu kontratua egikaritzean.


17.- AKATSAK KONPONTZEKO BETEBEHARRA.

17.1.- Enpresa kontratistak eman beharreko ondasunek, horiei buruz Estatuko, erkidegoko eta tokiko administrazioek ezarritako arau orokor guztiak bete beharko dituzte, betiere, dagokion oinarri teknikoen agirian ezarri ahal izan diren arau espezifikoek kalterik egin gabe.

17.2.- Hornigaien jabetza intelektual, industrial eta komertzialari buruz hirugarren batek egiten dituen erreklamazio guztien erantzule izango da enpresa kontratista, eta Legebiltzarreko Administrazioak erreklamazio horiek ezarri izanaren ondorioz jasan ditzakeen kalte-galerak ordaindu beharko ditu, horietatik eratorritako gastuak barne.

Fabrikazio-horniduraren kasuan, ustiapen ekonomikoa izan dezaketen jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak Legebiltzarreko Administrazioarenak izango dira, klausula-agirietan edo azaleko orrian berariaz kontrakoa esaten denean izan ezik.

17.3.- Enpresa kontratista izango da ondasunen kalitatearen eta, halakorik badago, akatsen erantzulea. Akats horiek administrazioaren agindu batek edo administrazioak ezarritako baldintzek zuzenean eragin badituzte, orduan bakarrik geratuko da erantzun beharretik libre.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

18.- LEGEBILTZARREKO ADMINISTRAZIOAREN AHALAK.

Kontratua egiten duen zuzendaritzak dena delako produktua nola egiten duten ikuskatzeko eta, hala eskatzen denean, gai horretaz informazioa jasotzeko ahalmena izango du. Ondorioz, erabili behar dituzten materialei dagokienez azterketak, saiakerak eta probak egin ahal izango ditu bere kasa, edo egiteko agindu, baita kalitatea kontrolatzeko sistemak antolatu ere, eta orobat hitzartutakoa zorrotz bete dadin beharrezkoak iruditzen zaizkion xedapenak eman.

19.- ENPRESA KONTRATISTARI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK.

19.1.- Hornigaiak benetan entregatzen baditu eta Legebiltzarreko Administrazioak formalki jasotzen baditu, enpresa kontratistak eskubidea izango du hornigai horien prezioa ordain dakion, kontratuan jasotako baldintzen arabera.

19.2.- Egindako lana ordaindu izana egiaztatzeko, kontratu osoa edo haren zati bat burutu dela egiaztatzen duten agiriak erabiliko dira: ordainagiriak, lansarien kontuak eta abar, klausulen agiri honen azaleko 10. puntuan xedatzen den maiztasunekoak. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 200. artikuluan ematen zaien izaera izango dute agiri horiek.

19.3.- Azaleko orriko 15. puntuan hala jartzen badu, eta enpresa kontratistak aurretiaz idatziz eskatzen badu, kontratuko ordainketak egin ahal izango dira, kontratua exekutatzeke prestatze-lanen diru-kopuruagatik, lan horiek kontratuaren gaiaren barruan dauden kasuetan. Horretarako, baldintza eta forma batzuk bete beharko dituzte: zerbait fabrikatzea bada hornigaia, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 155etik 157ra arteko artikuluetan zehaztutakoak, eta gainerako kasuetan, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 39. klausulan zehaztutakoak (1972ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartu zen klausula-agiri hori).

19.4.- Azaleko orriko 10.2 puntuan hala aurreikusita baldin badago, hitzartutako ondasunen antzeko beste batzuk emanez ordainduko da, zati batean, horniketa-lana.


Azaleko orriko 10.2 puntuan dago zehaztuta entregatu beharreko ondasunen balorazioa, baina inola ere ezingo du gainditu kontratuaren prezio osoaren % 50.

19.5.- Legebiltzarreko Administrazioak ordainketan bi hilabete baino gehiagoko berandutzea duenean, berandutze-interesak eta kobro-kostuengatik kalte-ordaina ordainduko dizkio enpresa kontratistari, merkataritza-eragiketetako berankortasuna borrokatzeko neurriak zehazten dituen legean aurreikusitako eran.

19.6.- Ezin izango da inolako ordainketarik egin, harik eta dagokion kontratua formalizatu arte.

20.- KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA.

20.1.- Premia berririk sortuz gero edo ustekaberik gertatuz gero, Legebiltzarreko Administrazioak kontratua aldatzeko aukera izango du. Halakoetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 202 eta 272. artikuluetan jartzen duena aplikatuko da.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

20.2.- Legebiltzarreko Administrazioak ezin du hitzartuta ez dagoen beste prestaziorik negoziatu enpresa kontratistarekin. Halako prestazioren bat beharrezkoa dela uste badu, kontratu independente baten gaitzat hartuko dira, eta, hortaz, sektore publikoko kontratuak erregulatzeko legerian aurreikusitako izapideak beteko dira.

20.3.- Kontratuan aldaketak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 140. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

20.4.- Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira honako kasu hauek: kontratuan aldaketak egitea, eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren prezio zaharrean –balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe– % 20ko gorabeherak eragitea bai gorantz bai beherantz, edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.

20.5.- Kontratua eteteari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 202. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

21.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA.

21.1.- Gai honi dagokionez Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 209. eta 210. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituko zaio, klausula-agiriko azaleko orrian zehazten denaren arabera..

21.2.- Klausula-agiriaren azaleko orrian azpikontratazioa galarazten ez bada, eta zenbait kontraturen berariazko eskakizunak ere bete beharra kendu gabe, enpresa kontratistak, oro har, egiaztatu egin beharko ditu honako zehaztasun hauek:

21.2.1.- Kontratuaren zati bat edo batzuk exekutatzeko, zein azpikontratistarekin egingo duen hitzarmena eta kontratuaren zein zati azpikontratatu duen. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 210. artikuluan 2.a) idatz-zatian eta klausula-agiri honetako azaleko orrian xedatutakoa bete beharko da azpikontratatzera.

21.2.2.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 210. artikuluan 5. paragrafoan ezarritako baldintza betetzea, hots, ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko gaitasunik gabe utzitako pertsonekin, 49. artikuluan jasotako kasuetan aipatutako pertsonekin –artikulu horretako k) idatz-zatiko kasua salbu–, eta sailkapen etendurako kasuan dauden pertsonekin azpikontratuak egiteko debekua.

21.2.3.- Prezioari dagokionez, prezio hitzartua enpresa azpikontratazista edo hornitzaileekin Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. artikuluan zehazten diren epe eta baldintzekin hitzartu beharra betetzea.

21.3.- Zehaztasun horiek egiaztatze aldera, enpresa esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

21.3.1.- Azpikontratazioa formalizatu aurreko komunikazio idatzia. Agiri horretan hauek adierazi beharko dira: zein azpikontratazista hitzartuko duen kontratuaren zati baten edo batzuen gauzatzea eta kontratuaren zein zati azpikontratatu diren.

21.3.2.- Komunikazio horri alde bietatik sinatutako dokumentu baten zirriborroa erantsiko zaio, agiri hori enpresa azpikontratazista eta hornitzaile bakoitzak sinatzeko. Agirian, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. artikulua xedatzen duenari jarraituz hitzartu beharko dituzte alde bietatik ordainketa-epe eta -baldintzak.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

21.3.3.- Honako egiaztagiri hauek ere gehituko zaizkio 21.3.1 puntuan aipatutako komunikazioari: Agiri bat, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 49. artikuluan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere –21.2.2 klausulan aipatutako baldintzetan– ez diela eragiten egiaztatzeko. Egiaztapen hori lekukotza judizialaren bidez edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Eta agintaritza eskudunak ezin badu agiria eman, horren ordeztuz erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (V. eranskina), administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Horrelakoetan, azpikontratista pertsona juridikoa bada, adierazpena sinatzen duenak ahalmen-agiria aurkeztu beharko du, enpresa Legebiltzarraren aurrean ordezkatzeko gaitasuna baduela egiaztatzen duena, eta pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala. Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatu ahal izango da betebeharrak bete izana. Betebeharrak bete izana egiaztatzeko, egiaztagiri administratiboak aurkeztu beharko dira. Egiaztagiriok, kasuan kasuko ogasunek (Estatuko Ogasunak edo foru-ogasunak, sozietateen gaineko zergan ageri den eragiketa-kopuruaren arabera) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorak eman beharko dute. Aldiz, jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, alta-agiria eta, beharrezkoa bada, azkenengo ordainagiria aurkeztu beharko dira. Kontratatzeko ahalmena egiaztatzeko prozedura baten bidez Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden azpikontratistei dagokienez, erregistroko legelari arduradunak emandako egiaztagiri balioudunaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du delako erregistroa). Horrela, ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko aurreko 1) eta 2) puntuetan adierazitako dokumentu eta inguruabarrak.

21.4.- Azpikontratazioa formalizatu baino gutxienez egutegiko 15 egun lehenago, enpresa esleipendunak 21.3 klausulan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu Eusko Legebiltzarreko Mahaian. Azpikontratazioa formalizatu ondoren, 21.3.2 klausulan aipatutako dokumentua –alde biena eta jatorrizkoa– aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak Eusko Legebiltzarreko Mahaian, behar bezala izenpetuta. Enpresa esleipendunak betebeharrak hori betetzen ez badu, edo ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango du azpikontratazio hori egin.

VIII.- KONTRATUA AMAITZEA.

22.- HORNIKUNTZA JASOTZEA.

22.1.- Enpresa kontratistak kontratuaren xedea oso-osorik bete duenean, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta Legebiltzarreko Administrazioaren gogoaren arabera, orduantxe joko da kontratua betetzat.

22.2.- Kontratua bete dela agerian gera dadin, administrazioak prestazioak jasotzeko egintza formal eta positibo bat egin beharko du edo adostasun-egintza bat; hilabeteko epea izango du horretarako, kontratuaren xedea eskuratu edo gauzatu denetik hasita,



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

edo klausula-agiri honen azaleko 30.1 puntuan zehazten den epea. **22.3.-** Kontratuan zehaztutako tokian eta egunean entregatu beharko ditu enpresa kontratistak horniketaren gai diren ondasunak, enpresak berak edo, bestela, eskuordetze baimendu bidez. Enpresa kontratista berandu ibiltzeak ez dakar Legebiltzarreko Administrazioak kargu hartu beharra.

22.4.- Horniketaren gai diren ondasunak hitzarturiko tokira garraiatzeko eta entregatzeko gastuak enpresa kontratistak ordaindu beharko ditu, non eta ez den besterik erabaki.

22.5.- Ondasunak ez badaude jasotzeko moduan, hala zehaztu beharko da jasotze-aktan, eta behar diren aginduak emango zaizkio enpresa kontratistari erreparatutako akatsak konpontzeko edo hitzartutakoari egokitutako beste horniketa bat egiteko.

23.- BERME-EPEA.

23.1.- Klausula-agiri honen azaleko orriko 30.2 puntuan zehaztuta dagoena izango da berme-epea, eta hornigaiaren jasotze-egintzatik hasita kontatuko da. Epe hori igarotzen bada Legebiltzarreko Administrazioak eragozpenik jarri gabe, amaitutzat joko da enpresa kontratistaren erantzukizuna.


23.2.- Berme-epeak irauten duen bitartean, enpresa kontratistak eskubidea edukiko du entregatutako ondasunen aplikazioari buruz informatua izateko eta bere iritzia entzunarazteko.

23.3.- Berme-epeak irauten duen bitartean egiaztatzen bada entregatutako hornigaiak akatsak edo okerrak dituztela, enpresa kontratista behartuta egongo da, Legebiltzarreko Administrazioak hautatuta, edo desegokiak direnak beste batzuekin ordezkatzera, edo, nahikoa bada, behar diren konponketak egitera.

23.4.- Berme-epeak irauten duen bitartean antzematen diren aldaketa-beharrak eta konponketa-beharrak bere kontura egin beharko ditu enpresa hornitzaileak, harik eta betebeharrak teknikoaren klausula-agirian jarritako mailara iritsi arte.

23.5.- Berme-epeak irauten duen bitartean Eusko Legebiltzarreko Mahaiak uste badu entregatutako ondasunak ez direla baliagarriak lortu nahi zen helbururako, eta hori ondasunetan antzemandako akats edo okerrenatik dela eta makur horiek enpresa kontratistari egotzi ahal zaizkiola, eta uste badu ondasunok ordezkatzera edo konpontzea ez dela nahikoa jarritako helburua betetzeko, kasu horretan, ondasunak ezetsi egin ahal izango ditu epe hori amaitu baino lehen, eta enpresa kontratistaren esku utziko ditu. Halakoetan, Legebiltzarreko Administrazioa ordaintzeko betebeharrak libre geratuko da, edo hala dagokionean, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

23.6.- Berme-epea amaitzen bada eta Legebiltzarreko Mahaiak ez badu formalizatu aurreko paragrafoetan aipatutako eragozpen edo salaketarik, hortik aurrera enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango entregatutako ondasunei dagokienez.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

24.- KONTRATUA KITATZEA. Jasotze-aktaren egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa egin eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta, hala badagokio, likidazio horren emaitza ordaindu egin beharko zaio. Likidazioaren emaitza ordaintzerakoan berandutzerik izaten bada, enpresa kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko du, merkataritza-eragiketetako berankortasuna borrokatzeko neurriak zehazten dituen legean aurreikusitako eran.

25.- KONTRATUA AZKENTZEA.


25.1.- Betetzeagatik edo suntsitzeagatik azkentzen da kontratua.

25.2.- Kontratua suntsitzeko arrazoiak dira, hain zuzen, klausula-agiri honetan berariaz jasotakoak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 206. eta 275. artikuluetan jasotakoak. Ondorioz, kontratua suntsitzeko arrazoa izango da enpresa kontratistak ez betetzea klausula-agiri honetan zehaztuta dagoen nahitaezko betebeharrak.

25.3.- Kontratua suntsitzearen ondorioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 206 eta 276. artikuluetan ezarritakoari jarraituz erabakiko dira.

26.- BERMEA ITZULTZEA. Berme-epa amaitu (azaleko orriko 30.2. puntuan dago zehaztuta zein den), kontratua kitatu eta kontratu hori behar bezala beteta, orduan hartuko du bermea itzultzeko edo ezeztatzeko akordioa Eusko Legebiltzarreko Mahaiak.

Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota oraindik ez bada horniketa formalki jaso ez likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio enpresa kontratistari egotzi, orduan, gehiago luzatu gabe, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da. Horretarako, ordea, beharrezkoa izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 88. artikuluan aipatzen den erantzukizun-kasurik ez gertatzea.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

27.- EPEAK EZ BETETZEA. 27.1.- Baldin eta enpresa kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzea izan badu klausula-agiri honen azaleko orriko 12.1 puntuan ezarritako zatikako epeak betetzeari dagokionez, edo epe horiek betetzean berandutzeak modu arrazoitsuan pentsarazten baldin badu ezinezkoa izango dela guztizko epea betetzea, edo epea bete ez badu, kasu horietan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak neurri hauetako bat erabaki ahal izango du, berak nahi duena: edo kontratua suntsitzea eta bermea galtzea, edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 196.4 artikuluan ezarritako zigorrak edo, bestela, klausula-agiri honen azaleko orriko 26. puntuan jasota dauden eta legekoen bestelakoak diren zigorrak ezartzea (Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluko 4. paragrafoan jartzen duenaren haritik, kontuan izan hainbat zigor izango dela aukeran, baldin eta hala zehazturik badago azaleko orriko 26. atalean).

27.2.- Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, Legebiltzarreko Mahaiak ahalmena izango du erabakitzeke kontratua suntsituko duen edo zigor berri batzuk ezarrita kontratuaren exekuzioa jarraituko duen.

27.3.- Aurreko kasu horiei dagokienez, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratua suntsitzea hautatzen badu, suntsipena Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 109. artikuluan araututako prozeduraren bidez erabakiko du organo horrek.

28.- ERREKURTSOAK. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA. 28.- KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.


28.1.- Erregulazio harmonizatuaren menpe dauden kontratuetan, errekurtsu berezia eduki ahal izango dute behin-behineko esleipen-erabakiak, lizitazioa erregulatzeko klausula-agiriak, prestazioaren ezaugarriak finkatzen dituzten egintzak eta aurreko prozeduran erabakitako tramite-egintzak. Azkenengo horiei errekurtsu berezia egiteko, ordea, esleipenari buruz ebatzi beharko dute zuzen edo zeharka, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabaki beharko dute edo eskubideei edo bidezko interesei defentsa-gabezia edo kalte konponezina eragin beharko die.

28.2.- Kontratazio arloko errekurtsu berezia, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 37. artikuluan arautua, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri baino lehen aurkeztu beharko da. Bere eremuan, ordea, ezingo da administrazio-errekurtsu arruntik jarri.

28.3.- Erregulazio harmonizatuaren menpe ez dauden kontratuetan, bidezko administrazio-errekurtsuak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoak izango dira.

29.- ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

29.1.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak eskubidea du administrazio-kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratua aldatzeko, kontratua suntsitzeko eta suntsitzearen ondorioak zehazteko. Hori guztia egiteko, kontuan hartu behar da zeintzuk diren Sektore Publikoko




**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak.

29.2.- Horretarako erabakiak hartu baino lehen, entzun egin beharko zaio enpresa kontratistari eta txostena egin beharko du dagokion zerbitzu juridikoak. Erabakiok berehala eta nahitaez betetzekoak izango dira eta administrazio-bidea amaituko dute, indarrean dauden legerian ezarritako eskakizunak beteta.

29.3.- Administrazio-bidea amaitzen duten erabaki guztien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera. Eta aukeran, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituz, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organo beraren aurrean.




EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

*KLAUSULA AGIRIAREN I. ERANSKINAPARTE HARTZEKO ESKABIDE-EREDUA (azaleko orriaren 4. puntuan prozedurak aurretiazko publizitatea duela adierazten bada soilik aurkeztu behar da honako eskabide hau)*DATU PERTSONALAK Izen-abizenak: Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada) Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea: ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT: I.- Izan dut, bai, dena delako kontratua esleitzeko iragarkiaren berri. Hauxe da kontratuaren xedea:

.....
.....

.....
II.- Halaber, ezagutzen ditut klausula teknikoen agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak berariaz onartzen ditut eta men egiten diet. III.- Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen legedian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokionez. IV.- Kontratu honi dagokionez eskaintza-aurkezpena onartzea eskatzen dut eta horretarako aurkezten dut administrazio-klausula berezien agiriaren 7.7 klausulan eta agiri horren azaleko orriaren 34. puntuan eskatutako dokumentazioa.(e)koarenalzpta.:NAN:



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

KLAUSULA AGIRIAREN II. ERANSKINAREN PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUADATU PERTSONALAK Izen-abizenak: Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada) Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea: ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT: I.- Izan dut, bai, dena delako kontratua esleitzeko prozeduraren berri. Hauxe da kontratuaren xedea:

.....
.....
.....

II.- Halaber, ezagutzen ditut klausula teknikoaren agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak berariaz onartzen ditut eta men egiten diet. III.- Ordezkatzen dudako enpresak indarrean dagoen legedian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokionez. IV.- Eskaintza honen prestazioari dagokionez, prestazioa emateko proposamen hau egiten dut: Oinarritzko konponbide edo bariantearen zenbakia (*zehaztu beharrekoa zehaztu*):

Diru-kopurua guztira [*] (*letraz idatzi*):.....
..... [**]. Eskaintzako prezioaren barruan kontzeptu guztiak izango dira, baita balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta esleipenean ordaindu beharreko beste edozein zerga edo gastu, eta orobat joan etorriak eta enpresa kontratistaren irabaziak ere. Epea (*esleipena nori eman erabakitzeko irizpideetako bat baldin bada besterik ez*):..... Eskaintzako guztizko diru-kopuruan sartuta daude euro [***], jasanarazi beharreko BEZari dagokion zenbatekoa baita.,(e)ko

.....arena.lzpta.:NAN: [*] *Kontratuaren gaia hurrenez hurren eta banakako prezioan eman beharreko prestazioak direnean, ez da bete behariko atal hau; bai aldiz proposamen ekonomikoaren dokumentua eta eredu honen eranskina.*

[**] *Sortatan banatuta egonez gero, zehaztu zein sortatara lizitatzen den eta adierazi sorta bakoitzagatik eskaintzako guztizko diru-zenbatekoa, zehaztuta BEZari dagokion kopurua, guztizko diru-zenbateko horren barruan dagoena.* [***] Salbuespen subjektiboaren kasuan, adierazi egin behar da eta hori egiaztatzeko dokumentazioa erantsi.



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

KLAUSULA AGIRIAREN III. ERANSKINABESTE HOBKUNTZA BATZUK, ESKAINITAKO PREZIOA GEHITU GABE, EGITEKO PROPOSAMENA PRESTAZIO HAUEK KONTRATUAN ADIERAZITAKO BETEBEHARREI GEHITUKO ZAIZKIE ETA EZ DAUDE SARTUTA ESLEIPENERAKO BESTE IRIZPIDE BATZUETANDATU PERTSONALAK Izen-abizenak:

Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada) Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea:

Azaleko orriaren 37.1 puntuan eta agiri honetako 7.6.4 klausulan ezarritakoaren arabera, beste hobekuntza batzuetarako proposamen batzuk egiten ditut, eskainitako prezioa gehitu gabe, zenbaki honetako oinarrizko konponbide edo barianteari dagokionez (zehaztu beharrekoa zehaztu):..... Kontratuan adierazitako betebeharrei gehitzeko prestazioak izango dira eta ez daude sartuta esleipenerako beste irizpide batzuetan.

Eskainitako hobekuntzetako bakoitza beregainekotzat jotzen da; beraz, kontratazio-organoak aukeran izango du kontratuaren barruan hobekuntzetako bat, batzuk edo eta bat ere ez sartzea.

| | |
|---|--|
| HOBEKUNTZAren zenbakia | |
| Hobekuntzaren azalpena: | |
| <i>(Hala badagokio, hobekuntzak eragiten dituen unitate edo kapituluak)</i> | Hobekuntzak eragindako neurketa <i>(hala badagokio)</i> |

| | |
|---|--|
| HOBEKUNTZAren zenbakia | |
| Hobekuntzaren azalpena: | |
| <i>(Hala badagokio, hobekuntzak eragiten dituen unitate edo kapituluak)</i> | Hobekuntzak eragindako neurketa <i>(hala badagokio)</i> |

.....(e)koaren
.....alzpta.:NAN:



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

KLAUSULA AGIRIAREN IV. ERANSKINA **EZ SARTU** **BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA** Kaudimen teknikoaren egiaztapena osatze aldera, enpresa lizitatzailak, exekuziorako bitarteko material eta pertsonalei dagokienez, honako hauek atxikitze konpromisoa hartu beharko du: I. Bitarteko materialak: II. Bitarteko pertsonalak:

BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOADATU PERTSONALAK Izen-abizenak: Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada) Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea: **ONDORENGOA ADIERAZTEN DU:** Kontratua egikaritzeko, besteak beste, klausula-agiriaren IV. eranskinean eskatzen diren bitarteko material eta pertsonalak atxikitze konpromisoa hartzen dut. Eta hala jasota gera dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau.(e)n, (e)koaren (e)an. Sinadura



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

KLAUSULA AGIRIAREN V. ERANSKINAKONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ EDUKITZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (notario aurrean formalizatu behar da) DATU

PERTSONALAK Izen-abizenak: Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada) Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko kodea:..... zenbakidun espedienteari dagokionez, ONDORENGOA ADIERAZTEN DU: Ez ni, ez ordezkatzen dudana enpresa, ez enpresa horren administratzaile edo legezko ordezkarietako bat ere, ez gaude sartuta administrazio publikoekin kontratatzeari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan jasotako debeku-kasuetako batean ere.

Halaber, aipatutako enpresa hori egunean dago indarreko legeriak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruz agindutakoari dagokionez, eta konpromisoa hartzen dut ezen behin-behineko esleipendun izaten banaiz, esleipen hori argitaratu eta hamabost egun baliioduneko epean egiaztatuko dudala eskakizun hori.


Eta hala jasota gera dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau.(e)n, (e)koaren (e)an. Sinadura

(*) *Adierazi espediente-zenbakia, administrazio-klausula berezien agiriaren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.*



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

KLAUSULA AGIRIAREN VI. ERANSKINA ENPRESAK ESKAINITAKO INFORMAZIO BATZUEI
IZAERA KONFIDENTZIALA EMATEKO EREDUADATU PERTSONALAK Izen-abizenak:
Helbidea: Nortasun-agiri nazionala: Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)
Enpresaren izena: Helbidea: Posta-kodea: Telefonoa: Identifikazio fiskaleko
kodea: ONDORENGOA ADIERAZTEN DU: Kontratazio-espedientearen zenbakia
(*):..... Gutun-azala (adierazi zein gutun-azal den):..... Gutun azal honetan
aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jotzen dira eskaintzari buruzko
honako informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta
daudelako: (e)n,(e)ko
.....aren(e)(a)n. NAN: (*) Adierazi espediente-zenbakia,
administrazio-klausula berezien agiriaren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.




**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

***KLAUSULA AGIRIAREN VII. ERANSKINA* ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute B gutun-azalean:

- 1.- Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatzea beharra daukate. Horretarako, erregistro profesional batean izena eman beharko dute, edo, bestela, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko I. eranskinean zehaztuta datozen egiaztagiria aurkeztu.
- 2.- Lizitatuak bere izenean jarduten ez duenean edo pertsona juridikoa denean, ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du. Ahalorde hori, gainera, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko da.
- 3.- Kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien eskumenaren menpe jartzeko adierazpena. Adierazpen horren barruan sartuko da, hala badagokio, lizitatuari egokitu dakioken atzerriko eskumen-uzitegiari uko egitea ere.
- 4.- Egiaztapena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 49. artikuluan adierazitako gorabeheretako batean ere ez egotearena. Egiaztapen hori lekukotza judizial edo administrazio-egiaztagiri bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritzak eskudunak ezin baldin bada dokumentu hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (V. eranskina), agintaritzak administratibo, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandakoa. Kasuan kasuko estatuaren legeriak aukera ematen bada, agintari judizialaren aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpenak ere balio izango du beste horien ordez.
- 5.- Europako Erkidegoko kasuan kasuko estatuko agintaritzak eskudunak egindako egiaztagiria, dena delako enpresak, aginte esleituaren estatuko legeko xedapenen arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzea. Agiri hau ere ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko du.
- 6.- Sailkapena eskatzen bada, Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresentzat nahikoa izango da Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean gaitasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, klausula-agiri honen azaleko orriko 33.1 puntuan eskatutakoaren arabera eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 66. eta 67. artikuluei jarraituz. Europako Erkidegoko estatuak euren enpresen alde egindako sailkapen-egiaztagirik edo antzeko dokumentuek enpresa horien ustezko ahalmena adieraziko dute kontratazio-organoen aurrean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 64.1.b) eta c), 65.a) eta 49.a), b), c), d), eta f) artikuluetan ezarritakoari dagokionez.
- 7.- Lizitatuak, hala dagokionean, klausula-agiri honen azaleko orriko 18.1 puntuan eskatzen den behin-behineko bermea eman beharko du. Berme horrek kontratuaren aurrekontuaren % 3rainoko zenbatekoa eduki ahal izango du eta agiri honen 7.6.2 klausulan adierazitako moduan eratu da.
- 8.- Europako Erkidegokoak ez diren estatuak enpresa atzeritarrek, aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzez gain, ondoko hauek ere egiaztatzea beharko dituzte:
 - a) Jarduteko ahalmena egiaztatzea, enpresak egoitza duen lekuan Espainiak daukan diplomaziako ordezkariak finkoak edo kontsuletzeko bulegoak emandako txosten bidez. Txosten horrek honako hau adierazi beharko du, aurretiaz enpresak egiaztatzen: enpresa horrek izena emanda duela hango lanbide edo merkataritzako erregistroan edo



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

antzekoan, eta halakorik ezean, kontratuaren gaiaren eremuko jardueretan aritzen dela. Alabaina, Europako Ekonomia Espazioari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresak baldin badira, jarduteko ahalmena eranskin honetako 1. puntuan aurreikusitakoari jarraituz egiaztatu beharko dute.

b) Honako hau egiaztatzea: enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, edo estatu horrek sinatua duela Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa. Azken hori egiaztatzeko, Espainiak kasuan kasuko estatuan duen ordezkariak diplomatikoaren txostena beharko da.

c) Dokumentu bidez, Espainian helbidea duen sukurtsala irekita dutela eta beharrezko eragiketarako ahalduak edo ordezkariak nominalki izendatu dituztela.

d) Merkataritza Erregistroan inskribatuta daudela, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahalduen ahalordetzeak ere inskribatuta dituela.

e) Baldin eta kontratuaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 15. artikuluan ageri den zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada, Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio publikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresei ez zaie eskatuko

b) idatz-zatian aipatzen den elkarrekotasun-txostena.



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

KLAUSULA AGIRIAREN VIII.

